

Batzarrik jendetsuena

Egunotan, joan den ostegunean hasita, Familia eta Komunitate Medikuntzaren XXI. Batzarra egiten ari da Kursaallean. Guztira, 4.000tik gora lagun parte hartzen ari dira kongresuan eta beraz, Donostian inoiz egindako batzarrik jendetsuena dugu honako hau. Kontuan hartu behar da, gainera, batzarkide batzuk senar, emazte edo bestelako senide edo lagunekin etorri direla. Beraz, Kursaalako kongresuak Donostiara milaka bisitari

erakarri ditu. Batzarra larunbatean, hilak 17, amaituko da.

Milaka lagun hauez gain, medikuntzari buruzko batzar hau kopuru izugarriak mugitzen ari da. Egunotan Donostiara 1.300 ibilgailu inguru etorri dira eta antolatzaileek beraien aitortu dutenez, trafikoko arazo bat edo beste sor daiteke. Ildo honetatik, batzarkideak Kursaalera joan daitezten, autoa hartu gabe, 35 bat autobus erabiltzen ari dira. Bestalde,

Donostiako eta inguruetako hotel eta ostatu guztiak beteta daude eta zenbait batzarkidek Bilbora, Iruñera eta Gasteizera jo behar izan dute. Kursaalako kafetegiko eta jatetxeko langileak ere gogotik lan egiten ari dira. Izan ere, antolatzaileen arabera, hiru egunotan 5.500 menu inguru eta 7.000tik gora kafe prestatu beharko dira. Inaugurazio egunean bertan 1.300 lagunentzako koktela egin zuten. Bestalde, batzarkideek 20 tona



Suhiltzaileak Martutenera joan litezke

Hiru urte barru suhiltzaileek egoitza berria izango dute. Easo kaleko egoitza zaharra utzi eta beste toki batera joango dira. Udala suhiltzaileen parke berria non egin aztertzen ari da eta dirudienez, Martutenen jar liteke.

Javier Urbistondo Udal Zerbitzuetako zinegotziak azaldukoaren arabera, egoitza Loiolako arztegi ondoko lursail batean eraiki liteke. Suhiltzaileek 5.000 metro karratuko eremua behar dute, eta Urbistondoren esanetan, "ez da lan erraza Donostian 5.000 metro karratuko lursail aurkitzea". Hauxe da Martuteneko aukeraren alde egiteko eta beste bi proposamenak, Garbera eta Belartza, bazterrean uzteko arrazoietakoa bat.

Bestalde, Urbistondok dioenez, Euro-

pako Batasunaren aholkuak kontuan hartuta, Martutene hiri gunetatik urrun samar dago, baina hala ere, errepide lotura onak ditu erdigunearekin eta Donostialdearekin. Ildo honetatik, udal arduradunek lotura horiek are gehiago hobetuko direla diote, Urumeako autobitari eta Martutene eta erietxeen arteko errepideari esker. Urumeako autobidearen ibilbidea zehaztu arte, hala ere, ez da behin betiko erabakia hartuko. Egoitza berria Martutenen jar litekeen arren, Erdialdean suhiltzaile talde txiki bat geratuko dela jakinarazi du Udal Zerbitzuetako zinegotziak.

Suhiltzaileen parke berria egiteko, 500 milioi pezeta bideratu beharko liriteke eta dirua Udalak eta Foru Aldundiak jarri beharko lukete.

Hitz eta pitz

Etxezarreta Lizarra-Garaziri buruz



Azaroaren 4ko Argiak elkarrizketa egin dio Ramon Etxezarreta Donostiako alkatorde eta Euskara eta Kultura zinegotziari. Besteak beste, udal kri-

sialdiaz eta egoera politikoa dela eta, PSE-EEen dagoen eztabaidaz aritu da Etxezarreta.

Mikel Asumendi kazetariak Lizarra-Garazi bezalako foro batean bere burua ikusten ote duen galdetu dio Etxezarretari. "Lizarra-Garaziko Akordioari ez nioke eragozpen handirik jarriko, baldin haren ondorioz, bizi izan genuen prozesu politikoa bizi izan ez bagenu. Nik zenbait jendearengandik bazterketa bizi izan nuen...", adierazi du PSE-EEko zinegotziak.